

**ERABAKIA, KOORDINAZIOAREN ETA NAZIOARTEKO HARREMANEN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN, 2020/2021 IKASTURTEAN «ENGLISH FRIENDLY COURSE (EFC)» IRAKASGAIAK PROPOSATZEKO AUKERA IREKITZEKOA.**

**RESOLUCION DE LA VICERRECTORA DE COORDINACIÓN Y RELACIONES INTERNACIONALES POR LA QUE SE OFRECE LA POSIBILIDAD DE OFERTAR ASIGNATURAS 'ENGLISH FRIENDLY COURSE (EFC)' PARA EL CURSO 2020/2021.**

Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren helburu nagusietako bat da UPV/EHUra gero eta ikasle gehiago etortzea atzerriko unibertsitateetatik. Helburu hori lortzeko eragozpen handienetako bat da titulazio batzuetan oso irakasgai gutxi eskaintzen direla ingelesez. Hori kontuan izanda, 2017ko urtarrilaren 18an lehenengo deialdia egin zen «English Friendly Course (EFC)» irakasgaiak proposatzeko. Irakasgai horietan eskolak gaztelaniaz ematen badira ere, haien irakaskuntza gida ingelesez ere eskaintzen da, eta tutoretzak, hainbat lan, azterketak eta abar ingelesez egin daitezke. Ekimen hori sustatze aldera Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak bigarren fase batean diru laguntzen deialdi bat argitaratu zuen, «EFC» modalitatean onartutako irakasgaien giden laburpenak itzultzeko.

El Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales cuenta entre sus objetivos prioritarios incrementar el número de estudiantes visitantes provenientes de universidades extranjeras. Sabiendo que uno de los principales obstáculos para lograr el objetivo mencionado es la escasa oferta de asignaturas en inglés en algunas titulaciones, el 18 de enero de 2017 se abrió una primera convocatoria en la que se ofrecía la posibilidad de ofertar como asignaturas 'English Friendly Course (EFC)' aquellas asignaturas de Grado que, siendo impartidas en castellano, ofreciesen la guía docente de la misma -así como las tutorías, diversas tareas, exámenes, etc.- en inglés. Con el fin de ayudar en la elaboración de las guías docentes adaptadas a esta acción, el Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales convocó en una segunda fase ayudas para la traducción de un resumen de las guías docentes de las asignaturas aceptadas como 'EFC'.

Horiek horrela izanik, orain deia egiten zaie ikastegiei EFC irakasgaiak eskaintzeko. Aurrerago, bigarren urrats batean, eta aurrekonturik baldin badago, itzulpenetarako diru laguntzen deialdia egingo da.

Con estos antecedentes se procede a convocar a los centros a ofrecer asignaturas EFC para, en un segundo momento y con supeditación a la existencia de presupuesto, convocar las ayudas mencionadas con las que se culmine la acción.

Azaldutakoa kontuan izanda, eta eman dizkidaten eskumenak erabiliz, honako hau.

En virtud de lo expuesto en el ejercicio de las competencias que ostento,

**ERABAKI DUT:**

**RESUELVO:**

**Lehena.-** «English Friendly Course» irakasgaien 2020/2021 ikasturteko deialdiaren oinarriak onartzea eta argitaratzea.

**Primero.-** Aprobar y publicar las bases de la convocatoria de asignaturas 'English Friendly Course' para el curso 2020/2021

**Bigarrena.-** Erabaki honen kontra berraztertze errekurtsua jar dakioko bera eman duen organoari hilabeteko epean, erabakia unibertsitateko campus bakoitzeko iragarki ohelean eta ohol birtualean argitaratu eta biharamunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen arabera (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 112. art. eta hurrengoak).

Era berean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da dagokion administrazioarekiko auzien arloko epaitegian, bi hilabeteko epearen barruan, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Administrazioarekiko auzi errekurtsorik ezin jarriko da, ebazpen espresua eman arte edo jarritako berraztertze errekurtsoren presuntziozko ezespina gertatu arte.

**Segundo.** Esta Resolución podrá ser recurrida en reposición en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el tablón de anuncios de la Universidad en cada Campus y en el tablón virtual, ante el mismo órgano que la ha dictado, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 112 y ss. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Asimismo, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado correspondiente de lo contencioso administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de su publicación.

No se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente o se haya producido la desestimación presunta del recurso de reposición interpuesto.

## OINARRIAK

### 1. Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea da ikastegiei aukera ematea irakasgaiak English Friendly Course (EFC) formulan eskaintzeko 2020/2021 ikasturtean. Aukera hau pentsatua dago atzerriko unibertsitateetatik UPV/EHUra datozen ikasleentzat, gaztelaniazko maila ertaina izan arren ingelesez aritzea nahiago dutenentzat.

### 2. EFC irakasgaiak bete beharreko baldintzak

Masterreko edo graduako irakaskai bat EFC modalitatean eskaintzeko, ezinbestekoa da irakasgaiaren **baliabide hauek guzti-guztiok** ingelesez eskaintzea, eskolak gaztelaniaz izan arren:

- Irakasgaiaren irakaskuntza gida laburtua.
- Irakasgaiaren ataza garrantzitsuenak ingelesez egiteko aukera.
- Azterketak.
- Gomendatutako irakurgaien zerrenda.
- Tutoretzak.

## BASES

### 1. Objeto de la convocatoria

El objeto de esta convocatoria es ofrecer a los centros la posibilidad de impartir asignaturas bajo la fórmula English Friendly Course (EFC) en el curso 2020/2021. Dicha modalidad está destinada al alumnado que visita la UPV/EHU proveniente de universidades extranjeras y que, aunque posea un nivel medio de castellano, se desenvuelve con preferencia en inglés.

### 2. Requisitos a cumplir por las EFC

Bajo esta denominación se ofertarán aquellas asignaturas de Grado y Máster que, siendo impartidas en castellano, ofrezcan **todos y cada uno de** los siguientes recursos en inglés:

- Resumen de la guía docente de la asignatura.
- Posibilidad de realizar las tareas clave de la asignatura en dicha lengua.
- Exámenes.
- Listado de lecturas recomendadas.
- Tutorías.

Nahitaezko baldintza da irakaskuntza gidaren ingelesezko laburpena, gomendatutako irakurgaien zerrendarekin batera, GAURera igotzea, eta [leanizt@ehu.eus](mailto:leanizt@ehu.eus) helbidera bidaltzea 2020/2021 ikasturtearen hasiera baino lehen.

Irakasgaiak modalitate honetan eskaini gura dituzten irakasleek egiaztatuta eduki beharko dute hizkuntza ez-ofizialetan (ingelesez) irakasteko gaitasuna, edo gutxienez ingelesezko B2 mailako ziurtagiria eduki beharko dute.

Irakasgai bat EFC modalitatean eskaintzea dagoenez irakasgai hori talde jakin batean ematen duen irakaslearen gaitasunaren eta borondatearen menpe, baimena ematen denean irakasgai bat EFC modalitatean eskaintzeko, eskaria egin duen ikastegi eta taldearentzat emango da (talde bakar batentzat edo gehiagorentzat).

### 3. Eskariak: xehetasunak eta aurkezteko era

Ikastegiak egingo du eskaria, bereizketa hauek aintzat hartuta:

1) Aurreko deialdian aurkeztu eta onartutako irakasgaiak, 2019/2020an EFC gisa eman direnak: Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak dokumentu bat bidaliko du ikastegi bakoitzera irakasgai horien zerrendarekin.

- a. Irakasgaiaren egoera ez bada ezertan aldatu, ikastegiak horri dagokion laukia markatu beharko du. Era berean, eskatzen diren datu osagarriak ere eman beharko ditu.
- b. Irakasgaia zeozertan aldatu bada (adibidez, lauhilekoa, irakasleak eta abar), aldaketa horiek dagokion atalean adierazi beharko dira. Era berean, eskatzen diren datu osagarriak ere eman beharko dira.

Es requisito obligatorio subir a GAUR y enviar a [pluriling@ehu.eus](mailto:pluriling@ehu.eus) el resumen de la guía docente en inglés junto con el listado de lecturas recomendadas antes del comienzo de curso 2020/2021.,

El profesorado que quiera ofertar asignaturas dentro de esta modalidad deberá estar acreditado para impartir docencia en lenguas no oficiales (inglés) o poseer un certificado de inglés de al menos un nivel B2.

Dado que la solicitud de la modalidad EFC para una asignatura depende de la capacitación y voluntad del/la docente que la imparte en un grupo concreto, la designación EFC hará referencia al centro y grupo para el que se solicite, pudiendo ser un único grupo o varios.

### 3. Solicitudes y formas de presentación

El centro será el encargado de solicitar las asignaturas EFC según las siguientes indicaciones:

1) Asignaturas que ya fueron presentadas y admitidas en la convocatoria anterior y han sido impartidas como EFC en el curso 2019/2020: el Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales hará llegar a cada centro un documento individualizado con el listado de dichas asignaturas.

- a. Si la situación de la asignatura no ha variado en ninguno de sus aspectos, el Centro deberá validarla marcando la casilla correspondiente. Asimismo, se deberán proporcionar aquellos datos complementarios que se soliciten.
- b. Si la asignatura ha sufrido alguna variación (por ejemplo: cuatrimestre, profesorado, etc.), dichos cambios deberán reflejarse en el apartado correspondiente. Asimismo, se deberán proporcionar aquellos datos

- c. 2019/2020 ikasturtean EFC modalitatean onartutako irakasgai bat eskaintzatik kendu nahi izanez gero, horri dagokion laukia markatu beharko da.

Ikastegiak eskaria jaso duen izen berarekin eta editatzeko moduko formatuan gorde eta bidali beharko du [eleanizt@ehu.eus](mailto:eleanizt@ehu.eus) helbide elektronikora.

- 2) Deialdi honetan lehen aldiz aurkeztu diren irakasgaiak:  
Ikastegiak 2020/2021 ikasturterako EFC irakasgai berriak izeneko I. ERANSKINA bete beharko du (<https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/eleaniztasun-plana-english-friendly-courses>) eskatutako datu guztiak emanaz.

Ikastegiak dokumentua behin beteta, editatzeko moduko formatuan gorde beharko du, honako izen honekin: «EFC\_berriak\_ikastegiaren\_kodea\_eta\_izena». Eta bidali beharko da [eleanizt@ehu.eus](mailto:eleanizt@ehu.eus) helbidera, mezua gaian honako hau jarrita: «EFC\_kodea\_eta\_ikastegiaren\_izena».

Era berean, ikastegiak dokumentuak sinaturik eta zigilaturik Erregistro Elektronikoan aurkeztu beharko ditu ikus Gobernu Kontseiluaren 2012ko maiatzaren 16ko Erabakia, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Erregistro Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamendurako eta Erregistro Elektronikoa Sortzeko Arautegia onartzen duena (ekainaren 18ko EHAA) Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzara zuzendua, Eleaniztasun Unitatearentzat zehaztuz.

Eskariak nahitaez aurkeztu behar dira aurreikusitako bi moduetan (posta elektronikoa eta erregistro elektronikoa)

complementarios que se soliciten.

- c. Si quiere darse de baja una asignatura admitida como EFC en el curso 2019/2020, se deberá marcar la casilla correspondiente.

El centro deberá guardar y enviar vía email a [pluriling@ehu.eus](mailto:pluriling@ehu.eus) el documento cumplimentado en formato editable manteniendo el mismo el nombre con el que se ha recibido.

- 2) Asignaturas que se presentan por primera vez en la convocatoria actual:  
El centro deberá cumplimentar el ANEXO I correspondiente a *Asignaturas EFC nueva impartición 2020/2021*, disponible en la web de plurilingüismo (<https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/eleaniztasun-plana-english-friendly-courses>) proporcionando todos los datos solicitados en el mismo.

El documento cumplimentado por el centro se guardará en formato editable con el nombre "EFC\_nuevas\_cod. y nombre de centro" y deberá ser enviado vía email a [pluriling@ehu.eus](mailto:pluriling@ehu.eus) haciendo constar en el asunto del mensaje "EFC\_cod. y nombre de centro".

Asimismo, el centro deberá presentar firmados y sellados el/los documento/s por Registro Electrónico o por cualquiera de los medios establecidos en el Acuerdo de 16 de mayo de 2012, del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Registro General y de Creación del Registro Electrónico de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (BOPV de 18 de junio) e irá dirigido al Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales, a la atención de la Unidad de Plurilingüismo.

Será estrictamente necesario enviar las solicitudes por los dos cauces arriba mencionados (email y registro electrónico).

bitartez).

Eskarian ez badira betetzen 66. artikuluko betekizunak eta, hala badagokio, 67. artikuluan adierazitakoak edo aplikagarri den legeria espezifikoan eskatutako beste batzuk, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena lege horretako 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

Jakin arazpen pertsonala egiteaz gain, hori guztia iragarki oholetan argitaratuko da, bai eta Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren web orrian ere, bertako «Eleaniztasuna» atalean  
<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/eleaniztasun-plana-english-friendly-courses>.

#### 4. Eskariak aurkezteko epea.

Ikastegiak 2020ko maiatzaren 27a baino lehen aurkeztu beharko dute EFC irakasgaien eskaintza.

Salbuespenez, ekainaren 17tik 29ra, bigarren epe bat zabalduko da, arrazoi justifikatuengatik eskarietan zerbait aldatu behar duten ikastegiak aldaketak egin ditzaten.

Ez da onartuko epez kanpo egindako eskaririk.

#### 5. Ebazpena

Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak eskariak ebatziko ditu eta ikastegiei jakinaraziko die zeintzuk irakasgai berri baimendu den eta zeintzuei berretsi zaien baimena. Era berean, Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko

Si la solicitud presentada no reúne los requisitos que señala el artículo 66, y, en su caso, los que señala el artículo 67 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, u otros exigidos por la legislación específica aplicable, se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la citada ley.

Sin perjuicio de la notificación personal a los/as interesados/as de todo ello se dará noticia en los tablones de anuncios, así como en la página web del Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales en el apartado de Plurilinguismo  
<http://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/eleaniztasun-plana-english-friendly-courses>.

#### 4. Plazo de presentación.

La solicitud para la oferta de asignaturas EFC por parte de los centros deberá realizarse antes del 27 de mayo de 2020.

De manera excepcional, del 15 al 29 de junio se abrirá un segundo plazo que permitirá realizar modificaciones a aquellos centros que por razones justificadas así lo soliciten.

No se admitirán solicitudes realizadas fuera de plazo.

#### 5. Resolución

El Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales resolverá las solicitudes presentadas y notificará a los centros las nuevas autorizaciones y la continuidad de las asignaturas solicitadas con anterioridad. Asimismo, en la página web del Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones

Errektoreordetzaren web orrian, «Eleaniztasuna» atalean, onartutako eta baztertutako eskarien zerrenda argitaratuko da.

Deialdi honen 2. oinarrian zehaztutako betekizunak betetzen diren ala ez egiaztatu eta gero, balorazio batzordeak (edo batzordeko kideek horretarako aukeratutako teknikariak) ebazpen proposamena argitaratuko du iragarki oholetan eta Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren web orrian, «Eleaniztasuna» atalean.  
<https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/eleaniztasun-plana-english-friendly-courses>

Hamar egun balioduneko epea egongo da proposamenari buruzko alegazioak egiteko. Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeak ebatziko ditu alegazioak, eta horren ostean behin betiko ebazpena emango du, eta hori argitaratuko da iragarki oholetan eta Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren web orrian, «Eleaniztasuna» atalean.  
<https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/eleaniztasun-plana-english-friendly-courses>

Adierazitakoa gorabehera, errekurtsioak aurkezteko epeak etenda daudela ulertu beharko da, harik eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuko bigarren eta hirugarren xedapen gehigarriak indarrrik gabe geratzen diren arte (errege dekretu horren bidez alarma egoera ezarri da COVID-19 birusak eragindako osasun krisia kudeatzeko). Alde horretatik, errekurtsioa jarri ahal izango da erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, baina epeak ez dira hasiko zenbatzen, iraungitze ondorioetarako, alarma egoera amaitu eta hurrengo egunera arte, 463/2020 Errege Dekretua ondorioz gabe utziko duen lege mailako arauan zehaztuko den moduan. Era berean, errekurtsio bat aurkeztuko balitz

Internacionales, en el apartado dedicado a Plurilingüismo, se publicará el listado de solicitudes admitidas y rechazadas.

Comprobado el cumplimiento de los requisitos expresados en la base 2 de esta convocatoria la comisión de valoración (o el personal técnico designado por sus miembros a estos efectos) publicará una propuesta de resolución, de la que se dará noticia en los tablones de anuncios, y podrá ser consultada en la página web del Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales en el apartado de Plurilingüismo:  
<https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/eleaniztasun-plana-english-friendly-courses>

En el plazo de 10 días hábiles podrán realizarse alegaciones a la propuesta, que serán resueltas por la Vicerrectora de Coordinación y Relaciones Internacionales tras lo cual el Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales emitirá una resolución definitiva que será publicada en los tablones de anuncios y en la página web del Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales en el apartado de Plurilingüismo:  
<https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/eleaniztasun-plana-english-friendly-courses>

No obstante lo anterior, habrá de entenderse que los plazos de recurso permanecen suspendidos en tanto no queden sin efecto las disposiciones adicionales segunda y tercera del Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19. En este sentido, se podrá interponer recurso desde el día siguiente a la publicación de esta resolución, si bien los plazos no empezarán a computarse a efectos de la caducidad hasta el día siguiente del levantamiento del estado de alarma en la forma en que se determine por la norma de rango legal que deje sin efecto el Real Decreto 463/2020. Igualmente, si presentado un recurso desde el mismo momento de la publicación se resolviere antes de que dicha

erabaki hau argitaratzen den unetik aurrera eta gorago aipatu den epeen etena amaitu baino lehen ebatziko balitz, ulertuko da errekursoaren ebazte data dela alarma egoera amaituko den data. Hori guztia, interesatuek auzi errekurtoa jartzeko duten eskubidea babesteko eta ez kaltetzeko; eta, aldi berean, haien interesen kudeaketa arintzeko eta indarrean dagoen epeen etena betetzeko.

#### **6. Ikasturtean zehar irakasgaiak aldatzeko eta baja emateko eskaerak**

EFC gisa onartu ondoren, ikasturtean zehar aldaketaren bat egin edo irakasgairen bat bajaran eman nahi bada, ikastegiak II. ERANSKINA bete beharko du nahitaez eta [eleanizt@ehu.eus](mailto:eleanizt@ehu.eus) helbidera bidali.

Leioan, 2020ko maiatzaren 6a

suspensión quedara sin efecto habrá de entenderse que la fecha de resolución del mismo es la del levantamiento del estado de alarma. Todo ello, con el fin de salvaguardar y no menoscabar el derecho a recurso contencioso de los interesados al tiempo que procedemos a agilizar la gestión de sus intereses y nos atenemos a la suspensión vigente.

#### **6. Solicitud de cambios y bajas de las asignaturas durante el curso**

Una vez admitidas como EFC, si durante el curso de impartición se quisiese realizar algún cambio o dar de baja alguna de las asignaturas, el centro deberá cumplimentar obligatoriamente el ANEXO II y enviarlo a [pluriling@ehu.eus](mailto:pluriling@ehu.eus)

En Leioa, a 6 de mayo de 2020

Marta Barandiaran Landin  
Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordea  
Vicerrectora de Coordinación y Relaciones Internacional